

## HEZKUNTZA-KANPAINA



### Zergatik aurkeztu dugu kanpaina hau ikastetxeetan?

2018. urteaz geroztik, Arabako Errioxako Kuadrillak, Entretanto Entretente - Birtartean Jolasean elkartearen eskutik eta Arabako Foru Aldundiaren nahiz Eusko Jaurlaritzaren babesarekin, hainbat ekintza sustatu ditu zurrumurruen aurkako sensibilizazio-estrategiaren harira, gizarte-kohesio handiagoa eratzeko eta kulturarteko bizikidetzak hobetzen laguntzeko.

Estrategia horren testuinguruan, Arabako Errioxako hezkuntza-komunitateari honako **hezkuntza-kanpaina** honetan parte hartzeko gonbita egiten zaio: **#ZurumurririkGabekolkasgelakArabakoErrioxa**. 2020ko abenduaren 14tik 18ra bitartean izango da, **abenduaren 18a Migratzaileen Nazioarteko Eguna** dela aitzakia hartuta.

Gaur egun **eskola-adinean dauden** mundu osoko **haur migratzaile eta lekualdatuen** kopuruak % 26 egin du gora 2000tik, eta une honetan **milioi erdi ikasgela betetzeko adina dira** (Unesco, 2019). Pertsona horiek bizi-aukera hobeen bila migratzen dutenean, sistema berrietara egokitu behar izaten dute, lege- eta administrazio-zailtasunei aurre egin behar diete, hizkuntza-oztopoak gainditu behar dituzte eta jasan dezaketen bazterkeriari aurre egin behar diote.

Batzuetan, migratzaileak eta errefuxiatuak epaitu egiten ditugu eta, harrera-herrialdeko biztanleen antzik ez badute, "desberdin" gisa ikusten ditugu. Estereotipo

eta aurreiritzi horiek bazterkeria eragin dezakete. Denok ezagutzen dugu “**ni ez naiz arrazista, baina...**” esaldia, aurreiritzi batek jarraitua. Arrazismoa ikasi egiten da; inor ez da arrazista jaiotzen. Arraza-bazterkeria pertsona guztioi eragiten digun arazoa da, eta gure esku dago harekin amaitzea.

**#ZurumurrurikGabekolkasgelak** kanpainaren helburua da **migratzaileenganako aurreiritzi, estereotipo eta bazterkeria guztiekin amaitzea, eta horren ordez hausnarketa kritikoa egitea, elkartasuna erakustea eta mentalitate irekia izatea, inor atzean ez uzteko. Arabako Errioxako Kuadrillan dagoeneko ikus daiteke ikasgeletan aniztasuna areagotu egin dela, eta garrantzitsua da ulertzea aniztasun horrek zer eronka eta aukera dakartzan berekin, komunitate indartsu eta erresilienteagoak osatzeko.**

## Nola har dezaket parte hezkuntza-kanpainan?

Hainbat aukera daude, eta ikastetxe bakoitzak erabakiko du nola hartu parte. Ondoen datorkizuen ekintza digitale(t)an parte har dezakezue:

1. Aldatu zure eskola edo ikastolaren sare sozialetako profil-argazkia.
2. Argitaratu eta hedatu migratzaileekin lotutako mezu, argazki eta bideoak, honako traol-hitz hauekin:

**#ZurumurrurikGabekolkasgelakArabakoErrioxa**

**#A18 #MigratzaileenEguna**

3. Animatu ikastetxeko ikasleak eta familiak hezkuntza-kanpainan parte hartzera.

### 1. Aldatu zure eskola edo ikastolaren sare sozialetako profil-argazkia.

Dokumentu honekin batera, atxikita bidaltzen dugu kanpainaren irudia, eta sare sozialetako profilean ipini dezakezue: Facebook, Instagram, etab. Irudi horrek agerian utziko du Arabako Errioxako hezkuntza-komunitateak migratzaileei ongietorria egiten diela.



IRUDI OROKORRA



INSTAGRAM / FACEBOOK (PROFILA). Hondo zuriarekin edo gardena

#ZurumurririkGabekolkasgelakArabakoErrioxa  
#AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa

ARABAKO ERRIOXA  
RIOJA ALAVESA



FACEBOOK (AZALA)

## 2. Argitaratu eta hedatu migratzaileei babesa emateko mezu, argazki eta bideoak, honako traol-hitz hauekin:

#ZurumurrurikGabekolkasgelakArabakoErrioxa

#A18 #MigratzaileenEguna

Gomendatzen da mezuak, argazkiak eta bideoak originalak izatea, ikasleek ikasgelan migratzaileei buruz egindako hausnarketaren eta lanaren ostean sortutakoak. Bestela, jatorrizko iturria aipatu beharko da.

Sare sozialetara igoko den mezuak, argazkiak edo bideoak argia eta positiboa izan behar du, eta errespetuz erabiliko da, gorrotoa ezin baita gorrotoarekin ezabatu. Garrantzitsua da gure mezuak polarizazioaren eta gorrotoaren narratiba haustea, eta aniztasuna eta giza eskubideen errespetua sustatzea.

Mezuak eta nahiak askotarikoak izan daitezke, ikasleen adinari egokituak: musuak, bihotzak, eskuak, marrazkiak, hitzak edo aldarrikapen-esaldiak. Interesgarria iruditzen zaigu ikastetxe bakoitzak aukeratzea sare sozialetara igoko dituen forma eta edukiak, mezuen, argazkien eta bideoen lagina anitza eta sortzailea izan dadin, gure lurraldearen antzera.

## 3. Animatu ikastetxeko ikasleak eta familiak hezkuntza-kanpainan parte hartzera.

#ZurumurrurikGabekolkasgelakArabakoErrioxa hezkuntza-kanpainaren bidez, hezkuntza-komunitatea (famiak, ikasleak, guraso-elkarteak, irakasleak) mobilizatu nahi da kanpainan parte hartzeko eta sare sozialetan arraza-bazterkeriarekin lotutako hausnarketa-mezuak hedatzen laguntzeko, narratiba alternatibo, sortzaile eta kontranarratiboaren bidez.

### Bibliografia osagarria:

#ZurumurrurikGabekolkasgelakArabakoErrioxa hezkuntza-kanpainan parte hartzeko erabilgarriak izan daitezkeen gidaliburu batzuk atxiki ditugu.

- [Orientaciones. Manual para combatir el discurso de odio en internet a través de la educación en derechos humanos](#). *No Hate Speech* mugimendua. Gazteriaren Institutua, 2016.

- [Save a hater. Ideas para actuar contra la polarización y el discurso de odio en las redes sociales.](#) Accem.
- [Contrólate en las redes. El discurso de odio en las redes sociales.](#) Bartzelonako Udala, 2017.
- [Guía para combatir el discurso del odio.](#) Fundación Secretariado Gitano, 2017.
- [Educar contra el racismo.](#) UGT. FETE (irakaskuntza), 2015.
- [Dossier de recursos educativos sobre racismo y xenofobia.](#) Gijongo Udala, Gazteria, 2014
- [Adin txikikoen migrazioari buruzko irakasmateriala.](#) SOS Arrazakeria.
- [Guía Antirrumores en el ámbito educativo.](#) RECI, 2020.

#### Balizko ideiak:



### Animatu parte hartzera!

Zalantzarik edo laguntza-beharririk izanez gero, jarri harremanetan gurekin,  
[entretanto.jolasean@gmail.com](mailto:entretanto.jolasean@gmail.com) helbidean edo

## CAMPAÑA EDUCATIVA



### ¿Por qué lanzamos esta campaña en los centros educativos?

Desde el año 2018 la Cuadrilla de Rioja Alavesa de la mano de la Asociación Entretanto Entretente - Birtartean Jolasean con el apoyo de Diputación Foral de Álava y Gobierno Vasco, viene promoviendo diferentes acciones dentro de la Estrategia de sensibilización Antirumores que contribuyan a generar una mayor cohesión social y mejora de la convivencia intercultural.

En el marco de esta estrategia, se invita a toda la comunidad educativa de Rioja Alavesa a participar en la **Campaña Educativa: #AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa** durante la semana del 14 al 18 de diciembre del 2020 dado que el **18 de diciembre** es el **Día Internacional de las personas migrantes**.

En la actualidad el número de **niños y niñas migrantes y desplazados/as en edad escolar** en todo el mundo ha aumentado un 26 % desde 2000 y **podrían llenar medio millón de aulas** (Unesco, 2019). Cuando estas personas migran para obtener mejores oportunidades de vida, deben adaptarse a nuevos sistemas, enfrentar dificultades legales y administrativas, superar barreras lingüísticas y hacer frente a una discriminación potencial.

Se juzga a veces a personas migrantes y personas refugiadas y, si difieren visiblemente de las poblaciones de acogida, pueden ser vistas como “personas distintas”, y los estereotipos y prejuicios pueden conducir a la discriminación. Todas y

todos conocemos la frase **"yo no soy racista, pero..."** seguido de un prejuicio. El racismo es un sentimiento aprendido, nadie nace siendo racista; nos afecta a todas las personas y depende de nosotros/as ponerle fin.

La campaña **#AulasLibresDeRumores** pretende que los prejuicios, los estereotipos y la discriminación hacia las personas migrantes se vean sustituidos por la reflexión crítica, la solidaridad y la apertura para no dejar a nadie atrás. El aumento de la diversidad en las aulas es ya una realidad en la Cuadrilla de Rioja Alavesa y es importante entender el reto y la oportunidad que supone esta diversidad para forjar comunidades más fuertes y resilientes.

## ¿Cómo puedo participar en esta Campaña Educativa?

Existen diferentes posibilidades, cada centro educativo decide de qué manera. Podéis animaros a la acción/es digital/es que mejor os encaje:

**1º** Cambia la foto de perfil de las redes sociales de vuestra escuela o Ikastola.

**2º** Publica y difunde mensajes, fotos y videos relacionadas con las personas migrantes acompañados de los hashtags:

**#AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa**

**#18D #DíaPersonasMigrantes**

**3º** Involucra al alumnado y familias del centro a sumarse en la campaña educativa.

**1º Cambia la foto de perfil de las redes sociales de vuestra escuela o Ikastola.**

Junto con este documento, os adjuntamos la imagen de la Campaña que podéis poner en vuestro perfil de las redes sociales: Facebook, Instagram etc. y que es la que visibilizará la bienvenida de la Comunidad Educativa de Rioja Alavesa a la población migrante.



IMAGEN GENERAL



INSTAGRAM / FACEBOOK (PERFIL) Está con fondo blanco y transparente

#ZurumurrurikGabekolkasgelakArabakoErrioxa  
#AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa

ARABAKO ERRIOXA  
RIOJA ALAVESA



FACEBOOK (PORTADA)



## 2º Publica y difunde mensajes, fotos y videos apoyando a las personas migrantes y acompáñalos de los hastags:

#AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa

#18D #DíaPersonasMigrantes

Se recomienda que los mensajes, fotos y vídeos sean inéditas y de autoría propia fruto de una reflexión y trabajo del alumnado en el aula entorno a las personas migrantes, y sí no, que se cite la fuente de procedencia.

El mensaje, foto o vídeo que se suba a las redes sociales debe ser claro, positivo y dirigido de manera respetuosa, porque el odio no debe ser combatido con odio. Es importante que nuestro mensaje rompa con la narrativa de la polarización y sirva para promover la diversidad y el respeto de los derechos humanos.

Los mensajes y deseos pueden ir desde besos, corazones, manos, dibujos, palabras o incluso frases más reivindicativas adaptados a las edades del alumnado. Creemos interesante que cada centro educativo decida la forma y contenido que subirá a las redes sociales para que la muestra de mensajes, fotos y videos sea diversa y creativa como nuestro territorio.

## 3º Involucra al alumnado y familias del centro educativo a sumarse en la campaña educativa.

A través de la Campaña Educativa **#AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa** se quiere movilizar y sensibilizar a la comunidad educativa (familias, alumnado, AMPA, profesorado...) a que se sumen a la campaña y ayuden a difundir mensajes reflexivos sobre la discriminación hacia las personas migrantes en las redes sociales a través de narrativa alternativa, creativa y contranarrativa.

## Bibliografía de apoyo:

Os facilitamos algunos manuales que pensamos pueden ser útiles para participar en la Campaña Educativa **#AulasLibresDeRumoresRiojaAlavesa**.

- [Orientaciones. Manual para combatir el discurso de odio en internet a través de la educación en derechos humanos](#). El Movimiento *No Hate Speech*. Instituto de la Juventud, 2016.
- [Save a hater. Ideas para actuar contra la polarización y el discurso de odio en las redes sociales](#). Accem.
- [Contrólate en las redes. El discurso de odio en las redes sociales](#). Ayuntamiento de Barcelona, 2017.
- [Guía para combatir el discurso del odio](#). Fundación secretariado Gitano, 2017.
- [Educar contra el racismo](#). UGT. FETE enseñanza, 2015.
- [Dossier de recursos educativos sobre racismo y xenofobia](#). Ayuntamiento de Gijón, juventud, 2014.
- [Material didáctico sobre migración de menores](#). SOS Racismo.
- [Guía Antirumores en el ámbito educativo](#). RECI, 2020.

### Posibles ideas:





**¡Animaros a participar!**

Cualquier duda o necesidad de apoyo poneros en contacto con nosotras en [entretanto.jolasean@gmail.com](mailto:entretanto.jolasean@gmail.com) o a través del teléfono 634 40 89 27